

# **Komunitatea eta genero-harremanak J.J. Rousseau-ren pentsamenduan**

**Mila Amurrio Velez**  
EHUko irakaslea

Teorialari feminista gehienek J. J. Rousseau, patriarkado modernoaren aita bezala aurkezten digute. Halarik ere, klasiko honen pentsamenduaren ezaugarriak nabarmenena, bere aberastasuna da. Aberastasun honek, hain zuzen ere, mila gairi buruzko beste horrenbeste iruzkin egin ahal izatea dakar. Azken honen adierazle dugu 80ko hamarkadaren amaieran sorturiko bestelako hausnarketak, zeintzuek feminismoaren korrante nagusiak proposaturiko interpretazioaren ondoan kontrajarria den beste bat aurkezten baitute. Horrela, demokrazia nazionalaren teorialariaren pentsamenduan, egon bada-go diskurso sexista bat; baina, diskurso horrek ez gaituela derrigor eramaten emakumeen hiritartasuna ukatzera.

The majority of feminist theoreticians present J.J. Rousseau as the father of modern patriarchy. Nonetheless, one of the fundamental characteristics of his work is its richness, making it possible for there to be multiple interpretations of the many subjects he dealt with. The reflections made at the end of the 1980s by a series of feminist authors are an example of this, reflections counterpoised in a certain sense to those put forward by the greater part of feminist theoretical production. Thus, while sexist discourse is evident in the thought of the theoretician of national democracy, this discourse does not necessarily lead to a denial of citizen ship to women.

## Komunitatea eta genero-harremanak J.J. Rousseau-ren pentsamenduan

Soziologiaren sorreraz hitz egiterakoan halaberrez *sozial* delako kontzeptuak duen garrantzia agerian utzi behar dugu; bai eta *sozial* delako horri dagokiona ere, hau da, komunitatearen garrantzia. Soziologian komunitateari buruzko interesa ikuskera bat da, metodologia bat, zeinak, erlijioa, autoritatea, legea eta nortasunaren azterketa argitu eta antolaketa eta desantolaketa auziari beste irtenbide batzuk eskaintzen baitizkio (Nisbet 1969).

Irtenbide horietan emakumeen funtzio eta kokapen sozialari buruzko hausnarketa ugari dago; ugaritasun honen arrazoi nabaria, honako hau da: komunitatea aintzat hartzen duten azterketetan ezinezkoa suertatzen dela emakumeen errealitateak ahanzteak. Alta, teoria feministaren arabera, emakumeen errealitateei buruzko hausnarketa hauek androzentrikoak eta, beraz, erratuak dira. Errakuntza horien emaitzak leharke proposaturiko edozein sistema sozialetan emakumeak zapalduak izatea, hots, esparru pribatuan kokaturik ugalketaz arduratzea eta sartu ezinik ibiltzea ekoizpen eta kudeaketa politikoaren esparruan, alegia, esparru publikoan.

Aurreko tesi hori egiaztatu guran feminista askok pentsamendu modernoak hustutzeari ekin diote, eta hustutze-lan horretan kritika sutuen jaso duen egilea J. J. Rousseau dugu:

Rousseau haunts contemporary political thinking. If not all things to all people, he is many things to many people. There are as many Rousseaus as there are Rousseau readers and controversies continue to swirl around his head. From Mary Wollstonecraft's rejoinders in 1792, to contemporary attacks on Rousseau as a misogynist, his work has provoked feminist thinkers (Eishtain 1986).

Bestalde, komunitatea bada gure ikuskera, egile honen obran erreferente handienetarikoa bat aurkitzen dugu. Bere utopia soziopolitikoaren ardatza gizarte hitzarmena izaki, honi berritasuna ematen diona, ezin baita ahaztu bere garaikideek tresna teoriko bera erabili izana, berak asmatutako kontzeptua da: nahimen orokorra.

Hitzarmen honen nahimen orokorra, taldeari dagokion NI komun batean islatzen da, gizaki bakoitzaren borondatek desberdinduz. Hau da, guztien borondatek, borondate indibidualen gehiketa bezala ulerturik, desberdinduz; ez da sinpleki borondate kuantitatibo bat, baizik eta bere sorkuntzarako kualifikazio moral espezifikoa beharrezkoa dugu. Borondate orokor hori eratzuz gero, bere aginteak helburu duen interes kolektiboa interes indibidualekin bat dator; horrexegatik, hiritarraren bat erresistitzen saiatzen bada, osotasun sozialak obedientziara derrihortuko du.

Nahimen orokorrak, gizakion ondasun komunak, gorputz politikoari morala ematen dio. Gizaki bakoitzak, komunitateari, osotasun bat bezala, bere eskubide guztiak ematean inori ez dizkio ematen bere buruari baino. Nahimen orokorrari obeditzea askatasun-ekintza bat da. Beraz, nahimen orokor horren emaitza, NI komun hori, komunitate morala litzateke.

Halaber, autore askoren iritziz (Akkerman 1992, Llobera 1996), J.J. Rousseau-k nazioa nahimen orokorrekin parekatzen du, nazio-estatuaren izaera moralala eta razionala ezarriz. Hau da, “nahimen orokorra” kontzeptua asmatzean, “herritar subiranotasuna” ideia hasiera eman zion; eta, era berean, nazionalismoaren forma modernoari, hau da, nazionalismoari masen fenomeno bezala. Izan ere, “nahimen orokorra” kontzeptu politikoa aurretiaz existitzen den kultura nazional batean oinarritzen da.

Aurrekoa aintzat hartuz, eta idazle feminista gehienek egindako jorrocketak aztertuz gero, ikusten dugu beraien hausnarketan abiapuntua ez dela komunitate-ikuskerarena. Ez, behintzat, arestian aipaturiko tesia sostengatzen dutenena. Gure inguru akademikoan tesi horri eusten dion beste adibide bat dugu, berriki argitaratuta, R. Cobo-ren “Fundamentos del patriarcado moderno” idazlana (Cobo 1995). Lan honen irakurketan oinarriturik, arestian plazaratutako iritzia eusteko hainbat argudio eskaini ditzakegu, baina, argudioak eman aurretik, ikus dezagun zein den egile honen tesia.

Egile honen iritziz, Rousseau-k generoaren arabera bi esparrutan banaturiko gizarte zibil patriarkalaren oinarriak ezarri zituen. Baina ez hori bakarrik, bere demokrazia zuzenaren printzipio politiko eta moralak praktikara eramateak arazo larriak sortarazten dituela diosku, eta arazo hauen artean, R. Cobo-rentzat, bi dira bereziki larriak: alde batetik, espazio publikotik emakumeak jaurtikitzea; eta bestetik, subjektu politikoa Estatuaren boterean urteza.

Totalitarismoaren kritika hau, bestalde, Izualdiaren adibide historikoaren emaitza, oso kritika hedatua da pentsamenduaren adituaren artean. Baina batzuek totalitarismoa ikusten duten tokian beste batzuek osotasuna ikusten dute. Esaterako, A. Bloom-en ustez (Bloom 1990), politika zentzu modernoan Estatuari dago-kio, gizakien arteko harreman-arauez arduratzen da, ez gizakiaren poztasunaz. Aldiz, kulturaren baitan gizakia osotasun bat bezala bizi da; kulturak bizimodu posibleak egituratu eta eratu egiten dituzenez poztasuna ahalbidetzen du. Horrela, Rousseau-rentzat kultura eta politika batera joango lirateke, bereiziezina izaki.

Amerikar autore honek egindako iruzkinak erakusten digunez, politika ulertzeko modu desberdinak daude. Batzuentzat –eta hauen artean R. Cobo legoke– politika osotasun sozialetik bereizirik esparru bat litzateke, boterearen esparrua, hau da, estatuarena; ordea, beste batzuentzat politika esparru zabalagoa litzateke, osotasun sozialetik bereiziezina, eta, antza denez, Bloom-en iritziz, bederik, Rousseau azken hauen artean legoke.

Politika ulertzeko modu bakar bat ez dagoen bezala, gizartea ulertu nahian gabiltzala egoera bertsuarekin topo egiten dugu. Batzuentzat gizakien elkarte erabilgarri bat den bitartean, beste batzuentzat komunitate moral bat da edo, bederen, gauza biak. Gizarteari lehenengo esangura ematen diotenez bereizketa bat ezartzen dute bere baitan: alde batetik esparru publikoa eta, bestetik, esparru pribatua –R. Cobo-k eta bera bezalako idazle feminista askok egiten duten moduan– osotasunezko ikuspegia galduz. Lehenengoan ekoizpena, botere materiala, Estatu eta honi dagokion hiritartasuna kokatzen dituzte, arrazoiaren erresuma

bailitzan aurkeztu guran. Bestean, ordea, ugalketa eta botere morala (kultura), hau da, sentimenduaren eremua. Bien artean, nabaria denez, hierarkia bat ere ezartzen da; arrazoa hierarkia horren tontorra litzateke, sentimendua eta berarekin doan guztia tontorrera ezin ailegatzean geldituz. Hona hemen, R. Cobo-ren iritziz, Rousseau-k emakumeei utzitako oinordetza: tontor azpian zapalduta betiko gelditzea.

Gizarteari komunitatearen esanahia emanaz gero, halako bereizketarik egitea ez da hain erraza suertatzen –honek ez du esan nahi egiten ez denik–. Bloom-ek dioskunez, Rousseau-rentzat politika eta kultura ez dira bereizgarriak, bata ez dago bestearen zerbitzuan, biak bateragarriak dira eta bateratu behar dira hitzarmen soziala gauzatzeko. Biak daude osotasun sozialaren zerbitzura, herriaren zerbitzura.

Azken ildo horri jarraituz, Rousseau-ren utopian nazio-estatuari bai arrazoa bai morala dagozkio, eta, beraz, ez du indarraren beharrik; izan baditu beste baliabide batzuk; esaterako: legegilea, autoritate berezi baten (erlijio zibila) jabea, herri baten sortzailea, nazio-hezkuntza bideratu behar duena eta, hortaz, Rousseau-ren pentsamenduan kokapen berezia daukana (Rousseau 1991, 1988). Hala ere, idazle feminista honen lanean ez dugu gai honen inguruko erreferentziarik aurkitu. Gure iritziz, funtsezkoa den gai hau soziologiako aitzindari honen pentsamenduan aintzat ez hartzeak eramaten du R. Cobo pentsamendu horren funtsezko planteamendua ez ulertzea.

Horrela, idazle honek eginiko ekarriarekin, hala nola, Rousseau-ren emakumetasunezkoari buruzko diskursoa sexistatzat jotzearekin, bat etorri arren<sup>1</sup>, bere pentsamenduari egiten dion kritikan hutsune nabariak aurkitzen ditugu; gure aburuz, politika eta gizartea ulertzeko moduen ondorioak izan daitezkeenak, hau da, osotasunezko ikuspegia galtzearen ondorioak. Komunitate-ikuskerara erabiliz gero, suitzarraren pentsamenduan dagoen genero-antolakuntzaren inguruan bestelako irakurketak egin daitezkeelakoan gaude, honako idazle hauek, T. Akkerman-ek (Akkerman 1992), J. Schwartz-ek (Schwartz 1984), J. B. Elshtain-ek (Elshtain 1986), M. Canovan-ek (Canovan 1987), egiten dituztenak bezalakoak.

Ekarpen hauen guztien berri emateak lan hau gehiegi luzatzea eskatuko ligukeenez, euren artean bi aukeratzea erabaki dugu. Erabakia hartzerakoan irizpide izan dugu egile horietariko bik euren hausnarketa esanguratsuenak jorratzeko Rousseau-ren lan bera hartu izana, alegia, *Julie edo Eloisa berria*. Egile hauek Teresa Akkerman eta Joel Schwartz dira. Lehenengoa emakumeen rol publikoaz edo hiritartasunaz ari zaigu, bigarrena emakumeen botereaz. Ikus dezagun, bada, zer “berritasun” dakarten hausnarketa hauek.

Nazio ideala, non gizabanakoaren askatasuna komunitate osoaren ongiarekin harmonian baitago, *Julia edo Heloisa berria* elaberrian bizitasun handiz

---

1. «Al descubrir Emilio a su Sofía en el campo, Rousseau aprovecha la ocasión para desarrollar su discurso sobre la diferencia de los sexos y sus propias relaciones. Ningún fragmento del Emilio es más pertinente que éste, ni más susceptible de despertar indignación, pues Rousseau es un “sexista”. La particular fuerza del argumento de Rousseau está en el hecho de que el autor comienza partiendo de premisas enteramente modernas –no derivadas del pensamiento bíblico o griego– y llega a conclusiones diametralmente opuestas a las del feminismo» (Allan Bloom 1990: 197).

deskribaturik dago. Nobela erromantiko honetan, komunitate idealaren ezaugarri orokorrak aurkitzeaz gain, bere eraikuntzaren historia ere aurkitzen dugu. Eraikuntza horretan, amaren bitartekotzak nazio modernoaren anonimotasuna eta hutsa komunitate batean bilakatzen du non gizabanakotasuna eta familiartasuna bat baitira. Honen arabera, emakumeek, amak bezala, rol publiko garrantzitsua jokatzeko dute. Ama Errepublikan herritar subiranotasunarekin eta nazio-kulturarekin harremanetan dagoenez gero, emakumeek nazionalismoan, estatu modernoaren erlijio zibil gisa, rol mesianikoa beteko lukete. Hau dela eta, Ama Errepublikak gizakia hiritarrarekin bat egitea lortzen du.

Akkermanen iritziz, Rousseau-k elaberri honetan emakumei buruzko diskurso ezkor baten ondoan baikor bat ere aurkezten digu: "bertutedun amak". Bertutedun ama etxeko esparruan/esparru pribatuan kokatu beharrean errepublikar testuinguruan kokatua. Halarik ere, arazo bat legoke: kontraesankorrak diren bi diskurso horiek nola egin bateragarriak?

Egile honen proposamena Rousseuren beraren osotasunezko ikusmoldeari eustea da, alegia, familia eta estatuaren arteko istilurik ez dagoen gizarteari; horrelako gizarte batean emakumeen rol publikoa eta, hortaz, hiritartasuna, gauza daiteke. Are gehiago, suitzarrak estatuaren eta familiaren arteko kidetasuna ezartzean patriarkadua errefusatzeko lehenengo pausoa ematen du. Eta, lehenengo pausoa diogu, egile honen aburuz, bigarren bat ere eman baitzuen beste kidetasun berri bat ezartzean, amatasunezko botereak aitatasunezko boterea ordezkatzeko. Honen adibide argia, diosku, hezkuntza publikoaren defentsan aurkitzen dugu (Rousseau 1985).

Botereaz ari garelarik, mementu a proposa dugu Schwartz-en esanak hona ekartzeko. *Julie*, idazle honentzat, Rousseau-ren politika sexualaren laburpena da; Julie-k, emakumearen boterearen inguruko hausnarketarik garrantzitsuenak, autoritatea daukan emakume baten istorioa kontatzen digu. Julie-k eta Wolmar-ek, Rousseau-k emakumezkoei eta gizonezkoei buruz esandako hainbat gauza *Emilio*-n islatzen dute.

Emakumeak ez dira soilik gizonak baino sozialagoak, bazik eta, gizonak sozialak izatearen arrazoia dira. Emilio eta Sophie-ren arteko erlazioari zein Wolmar eta Julie-ren arteko erlazioari dagokienez horrela da. Wolmar, Emilio bezala, emakume batekin erlazioatu baino lehenago gizartean bizi zen, batez ere, behatzeko. Wolmar-en lehenengo grina, agian grina bakarra, Julie-rikikoa da; bere bizitzan sentitu duen hunkipen bakarra.<sup>2</sup> Julie-k Wolmar sozializatzen du gobernatzeko; esparru pribatuaren nagusitasuna politikoaren aurrean islatzen du, are gehiago, egitez Julie-k ez du esparru politikoa eta ez politikoaren arteko bereizketarik islatzen, baizik eta, bien arteko harmonia.

Schwartz-en aburuz, Rousseau, emakumeek gorputzak eta nahiak dituztela jabetzeaz gain, besteak kontrolatzeko handinahia eta trebetasuna ere badituztela

---

2. Emilio-ren esanetan, «grinarik ez banu, gizonezkoa bezala, Jainkoa bera bezain independentea nintzateke, Sophie emaidazue eta libre izango naiz...» (Rousseau 1973).

konturatzeko da, ez baitira objektu pasibo hutsak. Kasu batzuetan gizona emakumeak meneratzeko gai dira, baina, beste batzuetan emakumezkoak ere gizonak meneratzean arrakastatsuak izan daitezke. Sexu bakoitzak bestea meneratzeko duen trebezia azpimarratuz, Rousseau-k gizonen eta emakumeen arteko erlazioaz egia garrantzitsu bat irakasten digu: sexu-erlazio guztietan, neurri batean, elkarrekiko menerapena existitzen da. Horren arabera, menerapena dakarren edozein giza erlazio errefusatzea, geroko munduan giza erlazioek menerapen-osagairik ez dutelako esperoan, utopikoa da.

Horrela, idazle honen iritziz, Rousseau-k lagun gaitzake gizonaren boterea emakumearengan sekula ez dela absolutua gogoratzen digun neurrian, eta emakumearen boterea gizonarengan inoiz ez dela izaterik gabekoa. Rousseau-ren emakumeek erabakiak hartu nahi dituzte eta ez besteek emandako erabakiak izan; haren emakumeek euren burua askatzeko beharra dute, baina, gutxienez, euren burua askatzeko gai izango zirelakoan gaude. Rousseau-k haien boterea azpimarratzen du, ez haien botere eza, baina, hori bai, amak eta emazteak dira ez langileak; beraz, euren boterea etxeko eta familiako esparruan kokaturik dago. Alta, ezin ahanzi, Rousseau-ren gizartean, familia eta estatuaren artean ez legokeela itilurik komunitate-ikuskerari eutsiz gero.

## Bibliografia

- Akkerman, T. (1992): "Nationalism and Feminism: The unknown soldier and the new Heloise", *History of European Ideas* 15: 649-654.
- Bloom, A. (1990): *Gigantes y Enanos: interpretaciones sobre la historia sociopolítica de Occidente*, Bartzelona, Gedisa.
- Canovan, M. (1987): *Rousseau's Two Concepts of Citizenship. Women in Western political philosophy*, Brighton, Praeger.
- Cobo, R. (1995): *Fundamentos del Patriarcado Moderno*, Madril, Cátedra, S.A.
- Elshtain, J. B. (1986): *Meditations on Modern Political Thought*, New York, Praeger.
- Llobera, J. R. (1996): *El dios de la modernidad. El desarrollo del nacionalismo en Europa occidental*, Bartzelona, Anagrama.
- Nisbet, R. (1969): *La formación del pensamiento sociológico*, Buenos Aires, Amorrortu editores.
- Rousseau, J. J. (1973): *Emilio o de la Educación*, Bartzelona, Fontanella.
- , (1985): *Contribución a la crítica de la Economía Política*, Madril, Tecnos.
- , (1988): *Consideraciones sobre el gobierno de Polonia*, Madril, Tecnos.
- , (1991): *Del contrato social. Discurso sobre las ciencias y las artes. Discurso sobre el origen y los fundamentos de la desigualdad entre los hombres*, Madril, Alianza.
- Schwartz, J. (1984): *The Sexual politics of Jean-Jaques Rousseau*, Chicago, University of Chicago Press.